

Atazetan Oinarritutako Irakaskuntza: Hernaniko Udal Euskaltegiko Esperientzia

*Jokin Nazabal
(Hernaniko U. E.)*

Artikulu hau HABEk eta UEUK kurrikulu berriaren ganean “Helduen euskalduntzearen berrikuntza kurrikularra” izenez Bilbon, 1998ko martxoaren 27an, antolatutako ikastaroan egin nuen hitzaldia bera da, aldizkari honetan argitaratzeko apur bat moldatua.

Ez zen hitzaldi horren helburua izan, eta ez da artikulu honena ere izango, Atazetan Oinarritutako Irakaskuntza (AOI) deituriko metodologiaren nondik-norako teorikoak azaltzea –horretarako gu baino adituagoak badira–, baizik eta Hernaniko Udal Euskaltegian metodologia hori aplikatu nahian egin ditugun pausoen eta esperientziaren berri ematea, norbaitentzat baliagarria izan litekeelakoan.

Gure esperientzia, beste zenbait euskaltegirena bezalaxe, HABEk diseinatutako *Helduen euskalduntzearen oinarritzko kurrikulua* (behin behineroa) aurkeztu eta gure euskaltegia saio-talde bat izateko aukeratua izan zenean hasi zen. Hori baino lehen, ordea, nabari genuen geure jardunean berrikuntza beharra, eta eskaini zitzaigun aukera hori baliatu genuen zenbait saiakera egiten hasteko.

94-95 ikasturtean hasi ginen lanean, esan bezala, saio-talde batekin. Orduetik hona irakasle bat izan dugu horretan aritzeko; irakasle horrek bi orduko erritmoan ari den talde bati ematen dizkio klaseak eta gainontzeko orduak klase horien prestaketan ematen ditu. Irakasle honezaz gainera, ikasturtez ikasturte, beste irakasle batzuek ere ekin diote lan horri, hainbesteko dedikazioz izan ez bada ere.

Lehen urte hura gogora ekartzean, burura datozkigun lehen hitzak “nora-eza” eta “bilatzea” dira. Bai, halaxe izan zen, nora-eza alde batetik, dokumentu horretan azaltzen diren eduki eta kontzeptu asko berriak baitziren guretzat; kosta egin zitzaigun kurrikuluak dakartzan apartazioez jabetzen

hastea, eta bitartean nondik nora jo jakin gabe ibili ginen; eta, bilatzea, beste aldetik, bide egokiaren, kurrikuluaren izpirituarekin bat etorriko zen bidearen bila eman genuen ikasturtea. Beraz, lehen ikasturte hura horretan eman genuen, kurrikuluaz jabetzen, geure burua jazten eta gure bidea izan zitekeenaren bila, gaiari buruzko literatura irakurtzen: liburuak, artikulak... Ondorioz, ikasturte horretan euskaltegian egin genuena, gehiago izan ziren bilatze horretan itsumustuan egindako saioak, bide bati jarraituz egindako lana baino.

Horrela, bada, ikasturtearen amaiera aldera AOI deitzen den, deitzen dugun, metodologiarekin topo egin eta hasi ginen zenbait froga egiten, artean bide egokia zenentz jakin gabe. Froga horien emaitzak ikusi eta bigarren ikasturterako metodologia honen aldeko apustua egitea erabaki genuen, ikasturte osoko froga serioago bat alegia.

Zergatik hartu genuen erabaki hori? Ez zen, beharbada, gehiegi pentsatu eta sakon aztertutako erabakia izan, han-hemenka irakurritakoa gustatu, zenbait abantaila ikusi eta frogak egiten hastea baizik. Ikusi genizkion abantailen artean, gure kasuan, bi izan ziren azpimarratzekoak:

- a** Alde batetik, klaseak integratuago emateko eskaintzen zigun aukera.
- b** Eta, bestetik, ikasleei hizkuntza errealarekin lotuago zeuden jarduerak eskaintzeko ikusten geniona.

Hauezaz gainera, izan zen beste bat ere: gure programazioan hizkuntz formak lantzeko ematen zuen aukera, euskaltegian ordura arte eramandako ibilbidearekin erabateko etena sortu gabe. Geure buruak ere lasaiago ikusten genituen horrela. Dena den, aurrerago ikusiko dugun bezala, eredu metodologiko honen zenbait teorikok aukera hau baztertu egiten dute.

Beraz, hartu genuen erabakiari jarraiki, bidea egin genuen, gero eta gus-turago eta geure buruaz seguruago, euskaltegiko irakasleak eta ikasleak gustura ari baitziren eta, hauen aldetik, egiten ari ginen berrikuntzen gainean, balorazio onak jasotzen baikenituen.

Esan beharrik ere ez dago, hasiera hartan egiten genituen “atazak” –gaur egun haiei “ataza” deitzeak ere lotsa ematen digu; izatekotan, hobe ataza-saiakerak edo horrelako zerbait deitzea– eta gaur egun egiten ditugunak ia ez dutela elkarren antzik, orduan bidea hasi besterik ez baikenuen egin. Baina gure “atazek” eboluzionatu egin dute, eta eboluzio horretan gertatu den prozesua gure prozesua izan da, beraren bidez joan gara ikasten eta sakontzen, beraren bidez egin dira gure jardunean egin diren aldaketa guztiak eta hartu dira hartu diren erabaki guztiak. Oso aberasgarria izan da guretzat.

Artikulu honen xede izango da aldaketa horiek eta gure euskaltegiko irakaskuntza-jardunaren zenbait alderditan hartutako erabakiak azaltzea. Noski, esan gabe doa: prozesu hau oraindik ez da amaitu eta, gure ustez, ez da inoiz amaituko.

Hala ere, aldaketa horien berri ematen hasi aurretik, AOI zer den, edo guk nola ulertzen dugun behintzat, eta metodologia honen zenbait ezau-

garri azalduko ditut, horrela Hernaniko Udal Euskaltegian egindako lanari kontestua emateko, hobeto uler dadin.

**AOI. Oinarri
metodologiko
batzuk**

Definizioa

Zer da *Atazetan Oinarritutako Irakaskuntza*. Egia esan, AOIren definizio asko eta asko daude; esan liteke berau erabiltzen duen autore bakoitzak bere definizioa ematen duela. Dena den, badute definizio hauek guztiek zerbait komunean, honako puntu hauetan laburbil daitekeena:

- 1 Atazak bizitza errealeko komunikazio-prozesuen errepresentazio dira, hots, pertsona batek hizkuntzarekin egiten duen haren errepresentazio. Hau adibide baten bidez oso erraz ikus daiteke:

Telefonoa hartu eta tren-geltokira deitzen dugunean trenen ordutegiari buruz galdetzeko hizkuntzarekin zerbait egiten ari gara; edo neguan kotxez bidaiaria egin aurretik telebistako eguraldiaren saioari begiratzeko diogunean ze eguraldi egingo duen jakiteko edo, elurra dela eta, zein bide dauden itxita jakiteko. Bada, hauen errepresentazio dira atazak.

- 2 Atazek hizkuntza ikastea dute helburu.
- 3 Klasean lan egiteko ekintza-unitate bezala defini daitezke, hau da, hasiera bat dute, bukaera bat eta jarduera batzuk.
- 4 Helburu batekin, egitura batekin eta lan-sekuentzia batekin diseinatu daude.
- 5 Bosgarren puntu batek atazak bi motatan bereizten ditu: *ataza komunikatiboak* eta *ataza bideratzaileak*:

Ataza komunikatiboak.– Hauen helburua komunikatzea da, hots, ikasleak, klasean, modu errealean eta ikasten ari diren hizkuntzan, esanahia trukatzeko, formari erreparatu gabe.

Ataza bideratzaileak.– Ataza komunikatiboak burutu ahal izateko ikasleek behar dituzten tresnak, edukiak, ikastea eta menperatzea dute helburu.

Adibide baten laguntzaz errazago ikusiko da bereizketa hau, eta lehen aipatu dugun adibideetako bat hartuko dugu horretarako: trenen ordutegiari buruzko informazio eske geltoki batera deitzea.

Informazioa elkarri trukatzeko ari direnean, gero apuntatu eta erabili ahal izateko, esanahia trukatzeko, orduak apuntatzeko, hots, komunikazioak, du garrantzia eta ez edukiek. Beraz, hau *ataza komunikatibo* bat izango da.

Baina, informazio hori trukatu ahal izateko, ikasleak zenbait eduki menperatu beharko ditu, “galdetzaileak”, esate baterako. Bada, horiek ikasteko jarduerak *ataza bideratzaile* bat izango da.

Dena den, AOIri buruz idatzi duten teoriko guztiak ez datoz bat bosgarren puntu honekin, eta muturrekoenak *Ataza bideratzaile* hauek baztertu egiten dituzte, alferrikakoak direlakoan. Nik ez dut artikulu honetan

ikuspegi baten aldeko edo bestearen kontrako arrazoirik emango, artikuluhonon helburuetatik haratago baitago, baina, gure ustez, *ataza bideratzaileak* baliagarriak dira eta, erabiltzen ditugunez, aipatu egin ditut.

AOIren ezaugarriak

Definizioa ikustean ezaugarri batzuk zirriboratu baditugu ere, ondoko lerroetan gehiago sakonduko dugu eta horretarako sei galderari erantzuten ahaleginduko gara.

Zer egiten da klasean?

Atazak egiten dira klasean, hots, definizioan dagoeneko aipatu dugun bezala, ikasleak bizitza errealean hizkuntzarekin egin beharko dituenen antzeko gauzak, *ataza komunikatiboak*, eta hauek egiteko ikaslea gauza izan dadin, *ataza bideratzaileak*.

Adibide berririk jarri gabe, lehen aipatu ditugun adibideak dira horretarako argigarri: tren-geltokira telefonoz deitzea edo eguraldiaren iragarpena entzutea.

Helburua izango da, behin ikastaroa amaituta, ikaslea gauza izatea euskaltegitik kanpo, bizitza errealean, klasean landu dituen eginkizun horiek burutzeko.

Batek baino gehiagok esango du hori ez dela berrikuntza handia, horrelakoak denok egin izan ditugula eta egiten ditugula klasean. Eta egia da, AOIk ez dakar inongo iraultzarik alderdi horretatik. Berrikuntzarik handienak, gure ustez, ondoko puntuetan datoz.

Nola osatzen da programazioa?

Atazek osatzen dute programazioa, ikasleak ikastaroaren amaieran menperatu behar dituen ataza multzoak.

Zeren arabera aukeratzen dira atazak?

Ikasleen beharren arabera. Eta hau argiago ikusteko, adibide bat jarriko dugu:

Demagun euskaltegian bi talde ditugula: bata, herriko lantegi batzuetako idazkarietz osatua, hizkuntza, batez ere, lantokian erabiliko dutenak; eta, bestea, herriko guraso-talde batez, hizkuntza familiar, seme-alabekin, erabiliko dutenak.

Argi dago batzuen eta besteen hizkuntz beharrak arraz diferenteak izango direla. Idazkarien hizkuntza erabiltzeko kontestua lantokia izango da: telefonoa erabili beharko dute; beraien zerbitzu eta produktuen gaineko informazioa eta azalpenak eman beharko dituzte, askotan telefonoz; beste inori telefonoa pasa aurretik, galdetu egin beharko dute, ... Honek gauza asko mugatzen ditu hizkuntzaren aldetik: erregistroak, zenbait estrategia, ... eta horiek landu beharko ditugu ikasgelan. Guraso-taldean, berriz, hizkuntza erabiltzeko kontestua zeharo diferentea izango da eta, beraz, erregistroa, estrategiak, ... ere desberdinak. Beraz, talde batekin eta bestearekin ikasgelan egingo ditugun atazak diferenteak izango dira, eta bizitza errealean erabili beharko dutenera ahalik eta gehien hurbildu beharko dute.

*Nola aukeratzen dira
edukiak?*

Edukiak atazak gauzatzeko beharrezkoak diren neurrian aukeratuko dira eta, ez, aurrez ezarritako sekuentziazio baten arabera. Beraz, edukien sekuentziazioa atazen menpe dago eta honek orain arte gure programazioak jarraitzen zuen edukietan oinarritutako linealtasuna hautsi egiten du.

Edukiak behin eta berriz azalduko dira, atazak egiteko beharrezko diren neurrian, eta horrela programazio linealak ziklikoari utziko dio leku.

*Nork diseinatzen du
programazioa?*

Orain arte, irakaslearen eginkizuna izan da hau, baina AOI metodologia defendatzen dutenen arabera ikasleek ere parte hartu behar dute hala atazak aukeratzekoan, nola helburuak jartzekoan, edo beste edozein erabaki hartzerakoan. “Negoziazioa” izango litzateke hitza.

Honekin lortu nahi dena zera da, ikasleen beharretara ahalik eta gehien hurbiltzea eta erabakietan parte hartuz ikasleen motibazioa areagotzea.

*Zer eta nork
ebaluaratu?*

Ez naiz ni puntu honetan luzatuko, Aitor Sangronizek sakonago jorratu-ko baitu gai hori ale honetan bertan. Bi hitz baizik ez, beraz.

Ez dira edukiak eta emaitzak bakarrik ebaluaratu behar, prozesua ere ebaluaratu behar da: ikasleek egiten dutena, nola egiten duten, hartzen diren erabakiak, ... guztia ebaluaratu behar da eta ebaluazioaren eginkizunak honako honek izan behar du: prozesua hobetzen lagunduko duen informazioa biltzea.

Eta, puntu hau amaitzeko, ebaluazioaren egile nork izan behar duen: ez du irakasleak bakarrik ebaluaratu behar, ikasleak ere egin behar du bere ebaluazioa, bestela ezingo luke erabakirik hartu, 5. puntuan aipatu dugunari jarraiki.

**AOIren ildotik
Hernaniko Udal
Euskaltegian
egindako
aldaketak**

Aurreko orrialdeetan ikusi ditugu AOI eredu metodologikoaren ildo nagusiak, labur bada ere, eta orain arrasto horri jarraiki, Hernaniko Udal Euskaltegian eragin dituen aldaketak azalduko ditut.

*Programazioaren
ardatza*

Lehen aldaketa programazioaren ardatzari berari dagokio. Ikusi dugun bezala, AOI eredu metodologikoan atazak dira programazioaren ardatz. Gurean, berriz, hizkuntz formak izan dira ia oraintsu arte. Eredu metodologiko honekin frogak egiten hasi ginenetik, ordea, ardatz hau aldatzen joan da, eta egun esan dezakegu gure programazioaren ardatz, neurri handi batean behintzat, atazak direla, oraindik prozesua amaitu ez bada ere.

Dena den, aldaketa hau ez da bat-batean egin; beharbada komeni ere, ez da komeni hala izatea, irakasleak ere dakienetik abiatu behar baitu aldaketa, bere burua seguru samar sentituko badu. Hasieran atazak egiten saiatzen ginen, bai, baina beti genuen begi bat hizkuntz formei begira, ia eman beharreko guztiak emanda ote zeuden. Poliki-poliki, eta ia oharkabean, hizkuntz formen antzinako sekuentziazioari gero eta arreta gutxiago eskaintzen geniola konturatu ginen eta aukeratzen genituenak “ataza

komunikatiboak” egiteko beharrezkoak ziren neurrian hautatuak izaten zirela. Beraz, gure programazioaren ardatz ataza multzo bat izan ohi da.

Integrazioa

Eredu metodologiko honen aukeraketak ekarri duen bigarren aldaketa nabarmena klaseen integrazioa izan da. AOIren definizioan esan duguna hona ekarrita, autore desberdinek emandako definizio guztietan ageri diren puntuetako bi honako hauek dira: alde batetik, atazak klasean lan egiteko ekintza-unitate bezala defini daitezkeela eta, beste aldetik, helburu batekin, egitura batekin eta lan-sekuentzia batekin diseinatuta daudela.

Gure klaseetako jarduna definizio horretako bi puntu horietatik oso urrun zebilen: bat, hizkuntz formak programazioak hala agintzen zuelako eta hala agintzen zuenean azaltzen ziren; eta, bi, trebetasunak, normalean hizkuntz formekin inolako loturarik gabe landu ohi ziren. Gainera, askotan, elkarrekin loturarik gabe: gaur mintzamina eta irakurmena, bihar idazmina eta entzumen; gai baten inguruko entzumen, beste batekoak entzumen eta irakurmena. Egia da, saiatzin ginen trebetasunak gai baten ingurukoak izan zitezien, lotura hori beharrezko eta kome-nigarri ikusten genuen, baina ez zen beti hala izaten eta, hala zenean ere, lotura beti gaia izaten zen eta ez besterik. Orain, berriz, lan-sekuentzia guztia ikasleak ataza gauzatzea lortzera bideratua dago, ataza da ekintza-unitatea.

Hala ere, aurrera jarraitu baino lehen, gure unitate bat, “ataza” bat disei-natzerakoan nondik abiatzen garen eta nola egituratzen dugun azalduko dut labur-labur:

Abiapuntua “azken ataza” izaten da, ikasleen beharren arabera aukera-tua, eta beti “ataza komunikatiboa”. Adibidez, eta artikulua honen hasie-ran jarri ditudan adibideak ez errepikatzearen beste bat aukeratuta, “azken ataza” izan daiteke herriko pertsonaia ezagun batzuei elkarriketa egitea eta elkarriketa hori idaztea, ondoren elkarriketa hori euskalte-giko aldizkarian ateratzeko.

Ondoren, ikasleek *ataza komunikatibo* hori bideratzeko beharrezko dituzten edukiak zein diren aztertzen dugu (zeuk azter dezakezu goiko ataza hori lortzeko zein izango diren beharrezko) eta horietatik zein lan-duko ditugun erabakitzen dugu, guztiak unitate batean lantzea ezinezkoa baita. Erabaki hauek ikaslearen maila zein den, ikasleak dakienaren eta lortu behar duenaren arabera aukeratuko ditugu: ikasleak euskaltegian 2. ikasturtea baldin badu, “ataza komunikatibo” hori egiteko behar dituen zenbait eduki menperatuak izango ditu, artikulua honen hasierako adibi-dean jarri ditugun “galdetzaileak” esaterako; beraz, ez ditugu horiek lan-duko, beste eduki batzuk baizik.

Aurrera jarraitu baino lehen, ordea, edukien puntu honetan parentesi txiki bat egin nahi nuke. Orain arte edukiak aipatzen ditugunean askori burura etorriko zaiona, guri behintzat hala etortzen zitzaigun, betiko hiz-kuntz formak izango dira, baina kurrikulu berrian edukien ikuspegi zaba-lagoa eskaintzen da eta horiezaz gainera beste eduki batzuk ere azaltzen dira: ikasestrategiak, azpitrebetasunak, testu-motak, testu-erak, ... Ez

naiz horietako bakoitza azaltzen hasiko, asko luzatuko baintzateke eta ez baita, gainera, artikulu honen helburua, baina hemen edukia aipatzen dudanean hori guztia hartzen dut aintzat, nahiz eta adibideak jartzerakoan hizkuntz formetara mugatu, errazago ulertzearren.

Beraz, edukiak erabakita ditugunean, “ataza bideratzaileak” diseinatzeari ekingo diogu, eta hauen bidez trebatuko dugu ikaslea “azken ataza” ondo egiteko. Ikusten den bezala, modu honetara, klasean egiten dena, hots, “atazak”, lan egiteko ekintza-unitate integratu bat dira, helburu batekin, egitura batekin eta lan-sekuentzia batekin diseinatuak.

Testuak Gure klaseetako jardueran egin den hirugarren aldaketa, “testu errealen” erabilera areagotzea izan da, maila guztietan gertatu dena (testu diodanean bai ahozkoak, bai idatzizkoak hartzen ditut aintzat).

Ataza definitzeko puntuetako batek honela zioen: “*Atazak bizitza errealeko komunikazio-prozesuen errepresentazio dira, hots, pertsona batek hizkuntzarekin egiten duen haren errepresentazio.*”

Beraz, atazak bizitza errealeko komunikazio-prozesuen errepresentazio badira, hau da, helburua ikasleak bizitza errealean erabiliko duen hizkuntza hori ikastea eta horretan gaitzea bada, normala da, eman beharko dizkiogun ereduak ere hizkuntza erreal hori jasotzea.

Lehen ere erabiltzen genituen testu errealak klaseetan, batez ere urrats altuetan, eta trebetasunak lantzeko eskuarki. Beheko urratsetan erabilita-koak, ordea, askotan eta askotan testu artifizialagoak izaten ziren, eman gabeko ahalik eta forma gutxienarekin, edukiren bat aurkezteko helburua zutenak zenbaitetan eta, ondorioz, forma hori behin eta berriz azaltzen zen. Emaitza, testu desitxuratuak, ikasleak kalean inoiz entzungo ez zituen bezalakoak, landu nahi genituen formez kargatuak. Eta sortu ere, halaxekoak sorrarazten genizkion ikasleari.

Baina, ikaslea hizkuntza errealerako trebatu nahi badugu, aurkeztu beharko dizkiogun testuak ere halakoak izan beharko dute, errealak, kalean topatuko dituenak bezalakoak. Hortaz, zeren arabera aukeratzten ditugu testuok?

Ikasleak “Azken atazan” hizkuntzarekin zerbait egin behar badu, egokia izango da ikasleari, eredu bezala, jatorrizko hitzunen testuak ematea, ataza hori bera egiten. Noski, ez da beti erraza izaten testu egokiak aurkitzea, batez ere entzutezkoak, baina aurrerago aipatuko dut arazo hau gainditzeko euskaltegian hartu genuen erabakia.

Ataza bideratzaileak Atazen definizioan aipatu dudan bosgarren puntua “ataza bideratzaileena” izan da, hots, edukiak lantzea helburu duten atazena, eta aurrerago, berriz, zera erantsi dugu, “kurrikulu berriak” eskaintzen duen eduki-sorta betiko hizkuntz formena baino haratago doala, gehiago azaltzen direla alegia. Nik, hala ere, hemen, laugarren puntu honetan, hizkuntz formak soilik aipatuko ditut, berauek lantzeko orduan egin baitugu euskaltegian beste aldaketa nabarmen bat.

Gurean, orain arte, gramatika modu tradizionalan lantzen zen. Programazioan tokatzen zen egunean agindutako forma aukeratzen genuen eta irakasleak forma hori testu baten bidez aurkeztu egiten zuen –ez beti, batzuetan zuzenean “teoriatik” hasten zen eta– eta ondoren, azaldu, hots, “teoria eman”, zenbait adibiderekina batera. Azkenik, ikasleek ulertu zutela uste zuenean, konprobatzeko, ikasleek zenbait ariketa egiten zituzten, esaldi batzuk oro har. Horrela, uste genuen ikaslea gai izango zela produzitzen hastean forma hauek erabiltzeko. Hitz bitan, APP (Azalpena, Praktika kontrolatua, Praktika askea) eredu metodologikoa erabiltzen genuen gutxi gorabehera.

Arestian esan dudana bezala, uste genuen ikaslea gai izango zela erabilera lantzeko orduan ikasitako forma hauek erabiltzeko, konturatzen baikinen ezetz, askok eta askok ez zituztela erabiltzen, eta zerbaitek huts egiten zuela.

Gainera, jartzen genituen adibideak eta ikasleek praktika kontrolatua egiten zituzten esaldiak kontesturik gabeak izaten ziren, askotan forma ulertu gabe ere egin zitezkeenak.

Bada, hizkuntz formak lantzeko garaian aldaketa dexentea eman dugu AOIrekin hasi ginenetik: alde batetik, lantzen ditugun edukiak “Azken ataza” egiteko beharrezkoak diren neurrian lantzen ditugu; bestetik, ikasleari eredu bezala ematen zaizkion adibideak testuetatik aterata ematen zaizkio. Beraz, forma hauek kontestu argi batean txertatuta lantzen dira.

Baina ez da hori izan aldaketa bakarra, ezta nagusia ere. Lehen APPri jarraiki, ikasleak “teoria ematen” zuen bezala, orain ikasleari uzten zaio arauak aurki ditzan. Ariketak prestatuta dauden moduan, ikasleari eredu errealean txertatutako formak ematen zaizkio eta lagundu egiten zaio ariketan zehar, pistak ematen zaizkio, poliki-poliki eta pausoz pauso formen gainean gogoeta egin dezan, hipotesiak egin ditzan eta arauak berak aterata ditzan. Honela ikasleari, ikasten ari den hizkuntzaren gainean gogoeta egiten erakusten diogu eta irakaslea ondoan ez duenean eta forma arrotz batekin topo egin, honi aurre egiteko prestatzen dugu, testua bertan behera utzi gabe. Hitz bitan, ikaslea autonomiarantz pausoak egiten laguntzen dugu. Analisitik sintesirako saltoa ematen saiatu gara.

Gainera konturatu gara, behin maila polit bat lortzen dutenetik aurrera, eta ariketa hauek talde-lanean egiten dituztenean, eduki hauek lantzeko ariketak mintzasaio bihurtzen direla, ikasleak gogoeta egiten, hipotesiak egiten ari direnean, ikasten ari diren hizkuntzan aritzen baitira hizketan. Eta saio hauetan bai, komunikazioa erreala da, komunikazioak du garrantzia, eta ez formak, ikaslearen helburua komunikatzea baita, mezua pasatzea.

Ebaluazioa

Azkenik, eta Hernaniko Udal Euskaltegian egin ditugun aldaketa nagusiak amaitzeko, bosgarren puntu bezala, ebaluazioan egin ditugunak ekarriko ditut hona.

AOIrekin hasi aurretik, euskaltegian egiten zen ebaluazio bakarra urratsa gainditzeko azterketak ziren, hots, produktua neurtzen genuen.

Baina, AOIren ezaugarrietan esan dudan bezala, “ez dira edukiak eta emaitzak (produktua, beraz) bakarrik ebaluatu behar, prozesua ere ebaluatu behar da: ikasleek egiten dutena, nola egiten duten, hartzen diren erabakiak, ... guztia ebaluatu behar da.” Eta “ez du irakasleak bakarrik ebaluatu behar, ikasleak ere egin behar du bere ebaluazioa.”

Ildo honetan hartu ditugun erabakiak eta ebaluaziorako erabiltzen ditugun tresnak azalduko ditut ondoko lerroetan.

Prozesua ebaluatzeko asmoz, honako tresna hauek erabiltzen ditugu euskaltegian:

- *Jarraipen-koaderno*.– Koaderno honek bi atal ditu; ikaslearena: bertan ikasle bakoitzaren gorabehera guztiak jasotzen ditu irakasleak eta taldearena: bertan taldearen gaineko informazioa jasotzen du irakasleak.
- *Ikasleekin elkarriketak*.– Sei elkarriketa egiten ditugu ikasle bakoitzarekin ikasturte batean zehar, bina hiruhilabete bakoitzean: bat, hiruhilekoan zehar, eta, bertan, irakasleak eta ikasleak azken honen prozesuaren gainean, klasearen martxaren gainean, edo beharrezko ikusten edozeren gainean iritzi-trukaketa bat egiten da; eta bigarrena, ebaluazioa amaitu ondoren: hemen jarritako helburuak lortu direnentz aztertzen da eta honen gainean gogoeta egin eta aurrera begira zer egin behar duen komentatzen da ikaslearekin.
- *Autoebaluazio-fitxa*.– Baina artikulua honetan bertan, AOIren ezaugarrietan esan dugun bezala, “ez du irakasleak bakarrik ebaluatu behar, ikasleak ere egin behar du bere ebaluazioa”. Hau lortzeko, unitate bakoitzaren amaieran autoebaluazio-fitxa bat izaten du ikasleak eta honen helburua da, ikasleak unitatean zehar egin duenaz ebaluazioa egitea, bere puntu ahul eta indartsuak aztertzea eta puntu ahulak hobetzeko lan-plangintza txiki bat egitea.

Tresna hauek guztiak martxan jarri arren, ebaluazio amaierako azterketak ez ditugu baztertu, gure ustez bai prozesua, bai produktua, biak baitira ebaluatu beharrekoak. Azterketa hauetan egin dugun aldaketa zera izan da, hizkuntz formak ebaluatzeko zatia kentzea, gure ustez hizkuntza bat ikastea hizkuntza hori erabiltzen ikastea bada, erabilera hori neurtu behar baita, eta ez horretarako behar dituen edukiak.

Hauek izan dira, bada, AOI eredu metodologikoarekin frogak egiten hasi ginenetik hona geure euskaltegian eman ditugun aldaketarik nagusienak. Hala ere, ez da dena hain erraza izan eta ez nioke artikuluari amaiera eman nahi izan ditugun eragozpen eta zalantza batzuk aipatu gabe eta nola gainditu ditugun adierazi gabe, gainditu ditugun kausan, oraindik ere gauza asko baititugu hobetzeko. Goazen bada banan-banan ikustera:

Beharren diagnosis

Eragozpen guztietan lehena, ikasleen beharrak diagnostikatzea da. Artikulu honetan bertan esan dugun bezala, programazioa osatuko duten atazak “*ikasleen beharren arabera*” aukeratzen dira eta jarri ditugun adibideak oso argiak ziren, hots, idazkari-talde bat eta guraso-talde bat.

Gure euskaltegi talderik gehienak, ordea, eta euskaltegi gehienetan hala izan ohi dela pentsatzen dut, taldeak ez dira hain homogeneoak izaten eta talde berean izan dezakezu idazkari bat, guraso bat, langabezian dagoen pertsona bat, ikasle bat, ... Beraz, eta erraz ikus daitekeenez, ikasle hauetako bakoitzaren hizkuntz beharrak eta helburuak oso diferenteak izango dira.

Orduan zer egin? Bada, gure kasuan, une honetan aurrez ezarrita daukagun programazioa erabiltzen dugu. Idealena, ordea, zera izango litzateke: ikastaro-hasieran programazioa ikasleekin negoziatzea eta horren arabera denen beharrei ahalik eta egokien erantzungo dien programazioa osatzea.

Negoziazioa

Eta aipatu dugu dagoeneko bigarren eragozpena, hizkuntzaren irakaskuntzan, beste arlo askotan bezala, hitz magiko bihurtu zaigun *negoziazioa*. Hitz hau ulertzeko modu asko daude, batzuk muturrekoak, eta hauen ustez klasera programaziorik gabe, esku hutsik, joan beharko genuke eta ikasleekin batera, negoziazioaren bidez, hasi osatzen programazioa eta, beraz, atazak.

Hala ere, guk ez dugu geure burua horrelakorik egiteko gauza ikusten eta klasera sartu aurretik oinarri sendo bat behar dugu; hortaz, guk askoz ere modu erlatiboagoan ulertzen dugu negoziazio hitza. Gure helburua honako hau litzateke: ikastaro bat egiteko berez beharrezkoak diren baino ataza gehiago izatea, gai, topiko, helburu diferenteekin, eta ikastaro-hasieran ikasleei hauek guztiak aukeran eman eta denon artean aukeratu ikastaroren helburuak lortzeko behar izango direnak, talde horren gustuen eta beharren arabera, eta horrekin osatu taldearentzako programazioa. Honek, gure ustez, ikasle horien ikaskuntzarako motibazioa areagotu egingo luke eta hori izango litzateke bere zereginik inportanteena.

Baina oraindik ez daukagu hainbeste ataza eskaintzeko eta hori dugu hurrengo urteotako zeregina: ataza berriak sortzen joatea urte batzuk barru eskaintza hori egin ahal izateko.

Testu errealak aurkitzeko zailtasuna

Hirugarren eragozpena, dagoeneko aipatua dudana, testu errealak lortzeko zailtasuna dugu. Artikulu honetako beste puntu batean esan dudana bezala, ikasleak “azken atazan” zer egin behar duen, hori bera egiten ari diren jatorrizko hitzunen testua eman behar zaio ikasleari eredutzat. Baina, honezkero burutik pasea izango zaizuen bezala, ez da erraza sor litezkeen ataza guztien eredu egokiak izatea, areago atazak sortzen joan behar denean eta irakasleok korrika eta presaka ibili behar izaten dugunean.

Nola gainditi, orduan, eragozpen hau? Hernaniko Udal Euskaltegian konponbide honen alde egin dugu: euskaltegian bertan grabatzea. Bai, lehen ere makina bat grabaketa egiten genituen, eta euskaltegi guztietan egingo dira, baina bada alderik lehen egiten genituenetik orain egiten ditugunera. Lehen, testu bat sortzean, lehenik gidoia prestatzen genuen, normalean hizkuntz forma bat lantzerantz bideratua (eta ez zedila eman

gabeko hizkuntz formarik azaldu!), eta, ondoren, grabatzerakoan, gidoi hori irakurri egiten genuen. Horrela, ateratzen zitzaigun testua zeharo artifiziala eta desitxuratua izan ohi zen.

Orain, berriz, irakasleei egoera ematen zaie, ikasleek egin beharko duten berbera, mikrofonoaren aurrean jarri eta inprobisa dezaten. Noski, ateratzen den testua oso diferentea izaten da: atze-aurrera askorekin, birformulazio ugari, hizkuntz forma aldetik askoz errealagoa, ... Hitz bitan, askoz ere testu errealagoa, erreala ez bada ere.

*Ataza bideratzaileen
aukeraketa*

Izan dugun beste zalantzetako bat da ataza bideratzaileen aukeraketa. Hasierako galdera hau izaten zen: ikasleek “azken ataza” egiteko ataza bideratzaile horiek guztiak ezinbestekoak al dituzte? Eta konturatzen ginen ezetz. Zenbat eta maila altuagoa, orduan eta gutxiago, gainera. Hori horrela zela ikusita, konturatu ginen, beharbada, ez zirela guztiak ezinbesteko izango, baina bai erabilgarri, eta ikasle batzuk, agian, haue-tako batzuez baliatuko zirela eta beste batzuk ez, baina ikasleari begien aurrean jarri behar genizkiola, ezagutu eta aukeran izan zitzan.

Bibliografia

HABE. *Helduen euskalduntzearen oinarritzko kurrikulua (argitara eman gabeko behin behineko txostena).*